

STORBAIS-EN CD BERRIA: LAN GOGORRAREN EMAITZA

Ziurrenik, pertsona bat baino gehiago harritu du Storbais Ermuko musika taldeak azkenaldian kale-ratutako azken lanak.

Izan ere, taldearen abesti guztiak aurki ditzakegu "Toxico se ingesta" hirurogeitahamapiku minututako compact disc koloretsu honetan bildurik (aurreko maketa barne hartzen du). Soinu-kalitate maila altukoa da eta prezio aldetik ezin merkeagoa dugu (1.000 pzta.). Hau guztia beraien kabuz egin dutela kontutan izanik, logikoa da harritzea.

Storbais en ilusioa, adorea eta etengabeko lana gertutik ezagutzen dugunontzat ordea, ez dago harridurarako tokirik: 60 kontzertu baino gehiago Euskal Herrian, Galizian eta Gaztelan zehar, aurreko maketaren hedapen izugarria (Kuba eta Japonian bada zenbait ale)...

Ermuko rock taldeen artean izugarrizko autogestio-irakaspena eman



Storbais Ermuko talde eraginkorrenetakoa bihurtzen ari da.

dute, eta taldearen eragina Ermuko rockaren bilakaeran nabaria da, batez ere azkenaldian sortu diren hardcore eta metalaren induruan dabilzan talde berriei erreparatzen badiegu (Sin, Anopheles...).

Storbais ezagutzen ez baduzu (hau bai harrigarria!) bilduma honetan duzu aukera paregabea "hard-kuelge" a zer den jakiteko. On egin

MARKOS GIMENO

13



UGARRO

AHOLKULARITZA FISKAL ETA JURIDIKOA

Zubiaurre, 27. 177 Apdoa.
ERMUA



Mutua General de Seguros


Seguru eta Reaseguruen Elkarte Mutua
1907 urtean sortua

Tfnoa: (943) 17 43 44
Faxa: (943) 17 54 58

ELEKTRIZITATEA
ZUBIAURRE

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61
48260 ERMUA



ZUTIK

GARAGARDOTEGIA

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOTan
bereztasuna